



# Langabetuendako dirulaguntzak

## IKASTURTE HASIERAN

Oinarrizko matrikularen **erdiari % 25eko** beherapena aplikatuko zaio. Ordainagiriarekin batera, **Bizitza laborala** deritzon agiria aurkeztu beharko dute.

## IKASTURTE AMAIERAN

Honela jokatuko da ikasturte hasierako matrikula ordaintzerakoan langabetuendako **hobaria jaso zuen** ikaslearen diru-itzulketa zehazterakoan:

- Urria-ekaina bitartean **4'5 hilabetetik GORA** lan egin badu, ikasleak **ez du itzulketarik jasoko**.
- Urria-ekaina bitartean **4'5 hilabetetik BEHERA** lan egin badu eta **asistentziaren % 85 bete badu**, ordaindutakoaren % **20** jasoko du.
- Urria-ekaina bitartean **BATERE LANIK EGIN EZ BADU** eta **asistentziaren % 85 bete badu**, ordaindutakoaren % **50** jasoko du.

Bestalde, eta **ikasturte HASIERAN hobaria jaso EZ baina gerora langabezia izan den (edo dagoen)** ikasleari dagokionez:

- Urria-ekaina bitartean **4'5 hilabetetik GORA** lan egin badu eta **asistentziaren % 85 bete badu**, ordaindutakoaren % **25** jasoko du.
- Urria-ekaina bitartean **4'5 hilabetetik BEHERA** lan egin badu eta **asistentziaren % 85 bete badu**, ordaindutakoaren % **50** jasoko du.

Horretarako, batzuek zein besteek **Bizitza laborala** deritzon agiria aurkeztu beharko dute berriro ere, Euskaltegiko idazkaritzan, **2020ko EKAINaren 15etik 30era bitartean**, Euskaltegiak egiazta dezan zenbateko lan-jarduera izan duen ikasleak urria-ekaina bitartean. **Agiria epe horretan aurkeztu ezean, ikasleak galdu egingo du diru-laguntza jasotzeko eskubidea.**

- Arestian aipatu diru-laguntzak **Bergaran errolatutako** ikasleei baino ez dagozkie.
- **OTSAILean** izena eman dutenekin **2'5 hilabeteko** erreferentzia erabiliko da diru-laguntza zehazterakoan.